



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

### BODYBOARD ZIRKUITUA 2023

#### - EZAUGARRIAK

##### - Egutegia:

- o Bakio. Apirillak 15/16
- o Zumaia. Itzurun Azaroak 4/5
- o Ereaga. Azaroak 11/12 - 18/19 - 25/26
- o Mundaka. Abenduak 2/3 - 9/10 - 16/17

##### - Zirkuituko ezaugarriak:

Zirkuito bakarra bi kategoriakin:

##### **OPEN MUTILAK**

Txapelketa burutzeko gutxienez 12 partehartzailek eman beharko dute izena.

##### **OPEN EMAKUMEZKOAK**

Txapelketa burutzeko gutxienez 6 partehartzailek eman beharko dute izena. Parte hartzaile kopurua ez balitz gutxienera iritsiko, OPEN MUTILAK kategorian izen emateko aukera izango dute, horrela OPEN MIXTO kategorian bat bilakatuz.

##### o **Txapelketako sistema:**

Kanporatze sistema.

Egun bat edo biko txapelketak, larunbat/igande.

##### o **Zirkuituko sailkapen sistema:**

4 froga izango dira (Bakio, Itzurun, Ereaga, Mundaka):

- Lau emaitzak hartuko dira kontuan.

- Azken frogako emaitzak balio bikoitza izango du.

- Itzurungo froga **EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA** izango da zirkuituko froga izateaz gain. Frogako lehen Euskal sailkatua Euskadiko txapeldun izango delarik.

Zirkuituko lehendabiziko froga irekia izango da (Bakio).

Zirkuituko bigarren froga irekia izango da (Itzurun).

Zirkuituko hirugarren froga (Ereaga) mugatua izango da. Horretarako 2023ko sailkapenari erreparatuko zaio: lehendabiziko bi frogen batura eginez Bakio eta Itzurun.

Ereagan parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da 2023ko zirkuituko froga bat egitea.

Premio Euskadi del deporte 2002 a la entidad deportiva  
Premio Cultural Award ASP 2.003



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

Ereagako frogako sailkapena ondorengoa izango da:

- MUTILAK: 2023eko TOP 16a.
- EMAKUMEZKOAK: 2023eko TOP 8a.

\*\*\*TOP-a betetzen ez bada antolakuntzak erabakiko du nola bete koadroak.

Mundakako froga mugatua izango da, zirkuituko hiru frogetako sailkapenak baldintzatua (2023eko zirkuitua).

Mundakako frogan izena emateko gutxienez 2022ko zirkuitu bereko froga batean parte hartzea beharrezkoa izango da.

Mundakako azken frogako sailkapena ondorengoa izango da:

- MUTILAK: 2023ko TOP 7a + GAZTE zirkuituko lehen sailkatuarentzako wildcarda.
- EMAKUMEZKOAK: 2023eko TOP 3a + GAZTE zirkuituko lehen sailkatuarentzako wildcarda.

\*\*\*TOP-a betetzen ez bada antolakuntzak erabakiko du nola bete koadroak.

Itxarote zerrenda (Ereaga eta Mundaka): Parte hartzaileen zerrenda egingo da izena emandakoen artean seedingaren arabera, txanden koadroak osatuko dira aurre ikusitako TOPEkin eta EHSFko kanaletan publikatuko dira.

Txandetan sartu ez diren baino izen ematea gauzatu duten parte hartzaileak automatikoki itxarote zerrendan egotera pasatuko dira aurrez definitutako seedingaren ordenaren arabera.

Txapelketako lehenengo errondan itxarote zerrendako parte hartzaileak hutsuneak betetzen joango dira orden berdina jarraituz. Behin txapelketa bukatuta, itxarote zerrendan zeuden baino parte hartzerik izan ez duten surflariei izen ematearen ordainketa bueltatuko zaie.

\*\*\*Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

### ○ Diru sariak:

- Zirkuitu osoa: 9.000,00 €
- Froga bakoitza: 2.240,00 €

\*\*\*Sariak berberak izango dira bi kategorietan (Gizonak eta emakumeak)  
- Diru sariak eskuratu ahal izateko beharrezkoa izango da parte hartzaileak behintzat txapelketako erronda bat gainditzea. Horrela ez balitz, taulan aurreikusitako saririk ez litzateke banatuko finaleko partaideak salbuespen izanda.

	MIXTO open		EMAKUMEZKOAK open
1º	380,00 €	1 o	380,00 €
2º	270,00 €	2 o	270,00 €
3º	180,00 €	3 o	180,00 €
4º	120,00 €	4 o	120,00 €
5º	50€ x2    100,00 €	5 o	50€ x2    100,00 €
7	35€ x 2    70,00€	7 o	35€ x 2    70,00€
	<b>1.120,00€</b>		<b>1.120,00 €</b>

### OHARRA:

**Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru dekretuei jarraikiz diru sari guztiek %15ko atxikipena izango dute.**

### ○ Seeding 2023:

- Lehendabiziko froga Bakio:: 2022eko sailkapenaren arabera.
- Bigarren froga (Itzurun): 2022eko zirkuitua + 2023eko zirkuituko sailkapena gehituko zaio (Bakioko froga).
- Hirugarren froga (Ereaga): 2023eko zirkuituko sailkapenaren arabera: Bakio + Itzurun
- Laugarren froga (Mundaka): 2023ko zirkuituko sailkapenaren arabera: Bakio + Itzurun + Ereaga

Txandak froga bakoitzeko seedingaren arabera antolatuko dira.

Premio Euskadi del deporte 2002 a la entidad deportiva  
Premio Cultural Award ASP 2.003



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

○ **Izen emateak:**

**- Epea:**

Froga aurreko **astelehenean (24:00h PM) itxiko dira.**

Parte hartzaile guztiek, TOP-ean sailkatuak eta wildcar-ak barne, gauzatu beharko dute izen ematea aurre ikusitako epe eta bidearen arabera. Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

Arazo informatiko edo eta akatsen bat izango balitz izen ematean parte hartzaileak idatziz (email bitartez) jakinarazi beharko dio federazioari honekin batera arazoaren frogak atxikituz (akatsaren pantaila-argazkia edo ordaintze sistemaren agiria) izen emate epearen biharamunaren 14:00h baino lehen (froga aurreko asteartean).

Itxaronaldi epeak dituzten frogetan edo baldintza egokirik izan ez delako atzeratu behar izan denetan, txapelketa egingo den hala ez jakinaraziko du antolakuntzak, froga egin aurreko **asteazkenean.**

**\* Antolakuntzak argi berdea ematea edo, aitzitik, txapelketa atzeratzea erabakitzen duenerako, parte-hartzaile guztiek izen ematea gauzatu izan beharko dute aurre ikusitako epe eta bidearen arabera.**

Atzerapena gertatuz gero, izena eman duten parte-hartzaileek inskripzio horri eutsiko diote, eta berriro irekiko da parte-hartzaile berrientzako izena emateko epea frogaren aurreko astelehenera arte. Eta horrela hurrenez hurren.

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik parte hartu nahi ez duten parte-hartzaileek emailaz jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (probaren aurreko **asteartea**), izen-ematearen zenbatekoa itzultzeko eskatuz. Une hori igarotakoan, zenbateko hori erreklamatzeko aukera galduko dute.

**Zenbatekoa:**

35 €

**Baldintzak- Izen emateko modua:**

EHSF web gunean: euskalsurf.com.

- EHSFkoak ez diren lizentziak: Federatu lizentzia eguneratua aurkeztu beharko da eskaneatuta eta email bitartez.



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

### 0 Zigorrak:

Froga ospatzen den bitartean txandaz kanpoko beste parte hartzaile batek (gainontzeko kategoria batean parte hartuta ere) lehiaketa oztopatuko balu eta identifikatu eta ohartarazpenari kasu egingo ez balio dagokion zirkuituko ondorengo bi frogetan parte hartzea debekatuko litzaioke.